

#11

BIDAIA DENBORA ETA ESPAZIOAN ZEHAR: SARAMAGO, CERVANTES ETA ZALDUNTZAREN TRADIZIOA

Christina I. McCoy

The University of Texas at Austin

Ilustrazioa || Mireia Martín

Itzulpena || Gari Ortigosa

Artikulua || Jasota: 31/01/2014 | Komite zientifikoak onartuta: 19/05/2014 | Argitaratuta: 07/2014

Lizentzia || 3.0 Creative Commons lizentzia Aitortu - ez merkatarizarako - lan eratorririk gabe



Laburpena || Artikulu honetan, *A Jangada de Pedra*-n (1986) José Saramagok *On Kixote* (1605) nola erabiltzen duen aztertzen da, itxuraz iberiar ondare literario komun baten aldarrikapena eginez. Nik, nolana ere, Saramagok lurraldearekin lotura duen inolako izatearen nozio problematizatzen duela argudiatuko dut. Saramagok espainiar ondare literarioari ematen dion erabilera aztertuko dut, argudiatuz egiatan Saramagok muga, aberri eta nazioaren zentzu oro disolbatzen duela, modernitatea itzuriz, eta bere nobela testuinguru europarrean kokatzen duela eta ez soilik portuges edo iberiarrean. Kosmopolitanismoaren leiarrean zehar, Saramagok sorteriari, egiari eta ezagutzari buruzko hainbat ideia kolokan jartzen dituela argudiatuko dut, Erdi Aroko zalduntza egungo bidai narrazioaren forman berridatziz.

Gako-hitzak || *On Kixote* | *A Jangada de Pedra* | Kosmopolitanismoa | Literatura Konparatua | Iberiar identitatea

Abstract || This article traces José Saramago's mobilization of the Cervantes' *Don Quijote* (1605) in *A Jangada de Pedra* (1986), an act that, at first glance, seems to invoke a shared Iberian literary heritage. I argue, however, that in fact Saramago problematizes any notion of being that is necessarily connected to territory. I trace Saramago's mobilization of Spanish literary patrimony, arguing that Saramago effectively dissolves all sense of borders, homeland and nation, eschews modernity and positions his novel in a European context, not simply a Portuguese or Iberian one. Through the lens of cosmopolitanism, I argue that Saramago questions ideas of home, of truth, and of knowledge, rewriting the medieval chivalric in the form of a modern-day travel narrative.

Keywords || *Don Quijote* | *A Jangada de Pedra* | Cosmopolitanism | Comparative Literature | Iberian identity.

José Saramagoren *A Jaganda de Pedra* liburuaren (1986) planteamenduak, Iberiar Penintsula osoa Espainia-Frantzia mugari jarraiki Europatik banatzen delakoak alegia, itxuraz Espainia eta Portugalen arteko ondare komun bat onartzen du, lur zatia Europarekiko lotura kontinental eta kulturaletatik at geratutakoan berreskuratzen dena. Izan ere, Saramagok gogora ekartzen du ondare literario komun hau, Cervantesen *On Kixote*-tik (1605) hartzen dituen gai eta momentu gogoangarriak bereziki aipagarri izanik. Haatik, Saramagoren jabetze literario horren ondorio zuzen eta agerikoena halako identitate iberiar bat aurkeztea dela badirudi ere, nobelan zehar autoreak berak pentsaera horri azpiak jaten dizkiola dirudi. Saramagok ezinezko bihurtzen du iberiar identitateari alde bakarreko zentzu bat emateko saiakera oro, bi herrialdeon tradizio literarioak konbinatuagatik ere. Horren ordez, eztabaidagarri bihurtzen ditu Espainia eta Portugalen harremanak Europa osoarekiko, erregionalismoz eta aurkako interes politikoz beteriko Iberia heterogeneo bat esplizituki erakutsiz. Gertakari geologiko erraldoi horren barnean espainiar tradizioa baliatzen duenean, Saramagok burura dakarrena zera da, lurraldearekiko loturarik behar ez duen nongotasun sentimendu bat, eta horrekin muga etniko eta nazionalak gainditzen dituen identitate-azterketa bat mahaigaineratzen du.

Ikerketa honetan, Saramagok espainiar ondare literarioari ematen dion erabilera aztertuko dut kosmopolitanismoaren begiradapean, nola Saramagok muga, aberri eta nazioaren zentzuak erabat disolbatzen dituen defendatuz, eta modernitateari itzuri egiten dion bere nobela testuinguru europar batean —eta ez portuges edo iberiarrean— kokatuz. Halaxe ondorioztatzen du Francis Loughek: “the ambiguities and uncertainties which pervade the whole work question the epistemological premises of such an [Iberian] identity” (2002: 157). Loughen ikerketan ageri den epistemologiarekiko kezka hau sakonago azaldu nahi dut, nire ustetan *A Jaganda de Pedra* eta *On Kixote*-ren muina denari —bidaiari— arreta berezia emanaz, eta horrela aztertuz nola bidaiatzeak, eta bidaiari buruz idazteak, ezaguera sistema espezifikoko baten barnean funtzionatzen duen; objektibitatearen eta izatearen bizipenaren instituzionalizazio ofizial ororen aurka egiten duen ezagutza sistema batean, hain zuzen. Lehen nobela modernoari (Cervantesena halakotzat hartzekotan) zor diona onartuta, Saramago, bidaiari-narrazioa generotzat hartuta, honen inguruko gogoeta jarraitu bat egiteko gai da, jakintzaren ekoizpena zalantzan jarri eta aldi berean esparru epistemologiko bat bilatzen duen gogoeta bat, ezagutza enpirikoa ustezkoaren gainetik nabarmenduz. Bai Saramago bai Cervantesen, pertsonaiak jakituria eta egiaren bila abiatzen dira beren lurraldean turista bilakatuta, eta ondorioa paradigma aldaketa nabari bat da. Aberria, mugak, lekualdatzea, idealismoa, prespektibismoa eta baita epistemologia bezalakoak zalantzan jartzean, Saramagoren nobelak

kontzienteki eta halabeharrez Cervantestar kutsua hartzen du, edota baita Kixote kutsua ere.

Saramagok On Kixote eta Sancho Panzaren bidaiei erreferentzia egitean ondorioztatu liteke literatura-homenaldi bat besterik ez dela, iberiar identitatearen izaerari buruzko aldarrikapen filosofiko handiago bat baino. Noski, Saramagok onartu onartzen du, berak — eta egungo beste edozein idazlek— Cervantesi eta Mendebaldeko literaturako narrazio-generoan eginiko ekarpenei zor diona. Horrela ere María Fernanda de Abreu bezalako hainbat kritikarik, Cervantesekiko erreferentzia kopuruagatik harrituta, momentu horiek azpimarratzearekin konformatu dira, soilik antzekotasunak nabarmenduz eta halako literatura maileguak dituen inplikazioak aztertzekeo analisi sakonetan sartu gabe. Halako jardunak ikerketa mardula lekarke dudarik gabe, erreferentziok ugariak baitira oso. Dena den, nire nahia da gura horiek saihestu eta konparazio zerrenda huts bat egin ordez, Saramagok Cervantesengandik hartzen dituen konnotazio teoriko orokorrak aztertzea.

Bai Saramagoren ipuin modernoan, bai Cervantesen obra moderno goiztiarrean, “staycation” edo “etxekopor” delakoaren gaia ageri da; hau da, bi nobelatan turista begiradaz esploratzen dituzte ezagunak zaizkien beren inguruak, aldi berean etxeko eta arrotz zaien geografia espezifikoki bati lotuta daudelarik. Bidaian zehar ageriko egiten da bilatzen duten ezagutza mota zein den eta zelan bidaiak berak beren intentzioak azaleratzen dituen. Bere aldetik, hor dugu On Kixote bidaziaren adelu falta ezaguna; ez du dirurik, nekez fidagarria den zaldi zahar batean ibiltzen da, eta zaldiko alderraiaren zalduntza-tradizioa imitatzen du, jadanik bere garaian anakronikoa. XVI. mendeko Espainian moda-modan egona zen Amadís de Gaula kondairazko zaldunaren istorioek bultzatuta, Alonso Quijanok On Kixote izena hartu eta hainbat urteetarako abenturatan murgiltzen da Espainian zehar, zalduneriaren bolada joan zenetik mende bat baino gehiago igaro ostean. On Kixoteren gura bakarra Amadís-en borroka eta bidaia epikoak birsortzea besterik ez da, zalduntzaren ideala hezurmamitzea. Ez da baina zalduna; norbanako arrunta da bera. Eta jaioterria ere, teoriarik behintzat edozein izan lezake. Hain da ezagutezin eta gogoangaitza ezen Cervantesek berak uko egiten baitio toponimo zehatz batez izendatzeari. Saramagok ere bere pertsonaien kualitate generiko eta sinple hori azpimarratzen du *A Jangada de Pedra*-ren lehen kapituluan, gainera gertalekutzat “em um lugar de Portugal de cujo nome nos lembraremos mais tarde” (1986: 10) duena. Hor Saramagok esplizituki baliatzen ditu Cervantesen hitzak, *On Kixote*-ren lehen esaldia gogora ekarriz: “En un lugar de la Mancha, de cuyo nombre no quiero acordarme” (2014: 54). Loughen arabera, eta berriro iberiar identitatearen zentzuari (edo haren gabeziari) buruz ari dela, Saramago lehen orrialde honetatik bere testuak jorratuko duen zailtasun epistemologikoaz irakurleak

ohartarazi nahian ari da (2002: 162). Saramagok, Cervantesek bezala, hisiatuki errefusatzen ditu egia eta finkotasuna, nola eta bidaiaren hasierako nondik norakoak azaltzeari uko eginez, garrantzi gabeko bihurtuz eta ziurtasun zentzu oro higatuz eta, horrekin batera, geografia edo aberriari loturiko identitatearen konszientzia oro birrinduz.

Bi eleberrietako protagonistak Espainia eta Portugalgo garrantzi gabeko herrixketatik abiatzen direnez, autoreok nabarmentzen dutena ez da bidaiaren hasierako (edo amaierako) puntu zehatza, baizik eta tartekoa, bidea bera. On Kixote bezala, *A Jangada de Pedra*-ko Joana, Joaquim, Pedro, María eta José bidaiari abiatzen dira helmugarik gabe, zehaztasunik gabe, planifikazio gutxirekin, baina beti ere abentura handiak eta halako premiazkotasun batek bultzatuta. Beren ibilbidea berez erabakitzen da, nahasmen handi eta ezinezko hutsaren artean informazioa lortzeko nahiak motibaturik. Zientziaren abar batek ere ezin izan du nobela abiarazten duen ezbehar geografikoa azaldu. Eta egoera horretan errurik dutelako ideia bera sinesgaitz bazaie ere, pertsonaiek ezin dute ukatu beren ekintzak halabeharrezkoegiak direla maila batean behintzat horietan ez sakontzeko; “[...] como todas as coisas deste mundo estão entre si ligadas, e nós a julgamos que cortamos ou atamos quando queremos, por nossa única vontade, esse é o maior dos erros,” gogorarazten digu Saramagoren narratzaileak (1986: 328). Ez dakite zergatik elkartu dituen patuak, baina badakite nolabait Pirinioak eta Frantzia banatzen dituen arrakala ikusi behar dutela, hala nola Gibraltarreko labar harritsuak zelan urruntzen diren —biak ere Europako beste herrialdeetatik guztiz aldentzen dituzten gertaera monumentalak. Pertsonaiek esangura(bako) eta intentzio(bako) diren kointzidentzia horien gertalekuetara bidaiari egiteko erabakia hartzen dute, zergatik zehazki jakin barik, bide osoan zehar magnetismo basati batek zuzenduta. Naturaz gaindiko puzzle hau osatzeko ahaleginetan, Saramagoren bidaiariei ez zaie nahikoa gertaera monumental horiekikoak irratian entzun edo telebistan ikustearekin, On Kixote berari beste zaldunei buruzkoak liburutegian bakarrik irakurtzearekin nahikoa ez zaion bezala. Zuzen-zuzenean ikusi behar dituzte, *desengaño* barrokoz beteriko ekintza goren batean.

Saramagoren pertsonaiek, Cervantesen izaki barrokoek bezala, ikusiaz batera sinesten dute. Horren gertaera katastrofiko eta barneraezinaren atzean berdinki sinesgaitzak diren arrazoiak (edo arrazoirik bat ere ez) egoteak krisi epistemologiko sakona eragiten du Penintsulan zehar. Narratzailea, protagonistak, baita bigarren mailako pertsonaiak ere, *A Jangada de Pedra*-n denak dabilta komunikabideei lotuta, gertaera hauei buruzko azalpen txikienari ere belarria itsatsirik. Baina aditu handienak eta teknologia zientifiko aurreratuenak batuta ere ezin diote ezbeharrari azalpen

esanguratsurik eman. Saramagoren munduan, ezagutzaren zutabe tradizionalak porrot egin duten horretan, iradokitzen da benetako ezaguera absolutu bakarra norberetik datorrena dela, norberaren gizatasunetik eta elkarrekin batzen gaituzten loturetatik datorrena, “not *through* identity but *despite* difference” (Appiah, 2006: 135, originaleko enfasia).

Egiaren bertsio ofizialaren gainetik esperientziatiko ezaguera baloratzean, Saramagoren narrazioak uko egiten dio inolako epistemologia egoki eta benetakoaren existentziari, bereziki goitik-behera helarazia bada. A Jangada de Pedra-ren orrietan zehar behin eta berriro jartzen ditu zalantzan Saramagok kartografia, geografia, topografia eta teknologia bezalako oinarrizko esparru epistemologiko konbentzionalak. Saramagoren narratzaileak honela azaltzen du:

A península cai, sim, não há outra maneira de o dizer, mas para o sul porque é assim que nós dividimos o planisfério, em alto e baixo, em superior e inferior [...] ainda que devesse causar certo espanto não usarem os países de abaixo do equador mapas ao contrário, que justiceiramente dessem do mundo a imagem complementar que falta. (1986: 316)

Ezagueraren oinarriak berak galdeketapean jarriz, Saramagok iparra eta hegoa zer diren ere arrotzen du, mendebaldeko “ezagutza” azpikoz gora jarri eta ezagutezin eta fidagaitz bihurtu arte. Eta nahaspila epistemologiko honen barnean pertsonaiek mundua berrezagutu behar dute. Baina esplikaziorik gabeko fenomeno geologiko hau gorabehera, laster hasten da beren esperientzia eta ikasteen eragiten.

Proiektu honen ironia, dena den, begibistakoa da: Saramagok, Nobel saridun autore tolesgabea izaki, intelektual publikoaren irudia eraiki du —eta beraz perspektiba letratu ukaezin batetik idazten du. Eleberrian zehar, topografia, hizkuntzalaritza eta literaturaren arloaz kanpoko hainbat arlo akademikori buruz dakiena erakusten du. Zentzu horretan *A Jangada de Pedra* ere bere buruaren aurka idazten duen autore baten obra bihurtzen da, bere bizitza osoan zehar metatutako jakintzaren kontra doa eta. Figura intelektuala den heinean, isekagarri zaizkion instituzio horien parte ere bada Saramago, eta horregatik halako dialektika aurkezten dio irakurleari: Ezagutza ofizialak, edo Egiak, mehatxupean jartzen ditu norberaren eta esperientziaren Egiak, edo perspektibismoa, eta ondorioz ziurgabetasuna eta anbibalentzia besterik ez dakar. Saramagok argudiatzen du, ikuspuntu guztiz postmoderno batetik, historia edo egiaren zentzu absolutu edo objektibo oro ezinezkoa dela, eta pertsonaiek bezala guk ere informazioa helarazten dizkiguten bideak eurak zalantzan jarri beharko genituzkeela. Dударik gabe prespektibismoa eta egia anitzen existentzia da *On Kixote*-ren mezu oinarrizko eta nabarientetako bat, eta horrexegatik are deigarriagoa

da Saramagok testu hori erabiltzea. Sanchok, esaterako, haize errotak bere aurka dabiltzan erraldoiak direlako On Kixoteren idea gezurtatzean, hark hala arrapostu egiten dio irmoki: “Bien parece [...] que no estás cursado en esto de las aventuras: ellos son gigantes; y si tienes miedo, quítate de ahí, y ponte en oración en el espacio que yo voy a entrar con ellos en fiera y desigual batalla” (Cervantes, 2007: 107).

Mundu ikuskera berezi honekin bateratuz, Cervantesen On Kixote lehen eleberri (post)moderno gisa har daiteke. Dударik gabe, Saramagok Cervantesen berrikuntzei zor dio *A Jangada de Pedra*-ren egituraren zati handi bat, eta ondare literario hori aitortu egiten du Espainiako Urrezko Mendeari hainbat frogaturiko erreferentzia bihurri eginez. Adibidez, Saramagoren nobela episodikoa da eta horrekin zalduntza-erromantzea dakar gogora, kapitulu bakoitza gertaera espezifikoko bati lotua dagoelarik gehienetan, eta ez gertakizun hari bakar baten inguruan korapilatuta. Desbideratu eta Roque Lozano bezalako bigarren mailako pertsonaia isolatuen inguruan aritzean ere, Cervantesen tartekatzeen erabilera ari da imitatzen autorea, *Kixote*-ko «Curioso Impertinente» edo «Historia del Cautivo»-koa kasurako, biak ere pertsonaia nagusiarekin zerikusirik gabekoak baina obraren koherentzia kaltetzen ez dutenak. Saramagoren narrazioa ere modu berean doa hemendik hara, bere bost protagonistak alde batera utzi eta narrazioa makro mailan berrezarritik, gertakizunen larritasuna eta horiek munduan zehar duten eragina gogorarazita irakurleak ikuspuntua ez galtzeko moduan. Argumentuan gertatzen diren desbideratze eta etenek suspensea sortu eta irakurlea behartzen dute hariak berriz lotu arte pazientziaz itxarotera. *On Kixote*-n akzioa eteten denean, gehienetan istorioa topatu duten eskuizkribu batean dagoelako izaten da, itzuli eta amaitu gabekoa. Are gehiago, zalduneria erromantzea beti zebilen teknika desberdin eta berrikuntza nobelistikoen xerka, hala nola beste generoen parodia eta birjabetze literarioa (Cuesta Torre, 2007: 555). Cervantesen jabetze literarioen parodia-efektua bere irakurle garaikideek (eta modernoek) zalduntza tradizioa ezagutzeko zuten gaitasunaren araberrakoa da; era berean, Saramagok ondare literarioari buruz dakiena erakusten du, bere irakurleek berdina egingo dutelakoan. Eta hala ere, bi nobelok desberdintasun handi bat dute zalduntzarekiko: Kristautasunarena. *On Kixote* “never engages in the typical enterprise of a Christian knight: the forcible conversion of a «pagan» (i. e., Moslem or idol-worshipping) knight, usually after defeating him in battle,” eta era berean Saramagok erlijioari buruz aritzea sahiesten du, ezbeharrekin topatzean agerterraza dirudien gaia izan arren (Whitenack, 1993: 64).

Aurreko hainbat analisik *A Jangada de Pedra*-ren izaera episodikoa nabarmendu dute zalduntzaren eta bidaiaren narrazio modernoaren arteko loturarik egin gabe. Mary L. Danielen aburuz, eleberria

osaten duena zera da: “the interwoven journeys of a nucleus of five individuals whose paths cross within the national boundaries of Spain and Portugal to form the texture of what may be called the plot of the novel, if indeed there be a plot” (1991: 537). Zaila da, izan ere, eleberriaren argumentua labur ematea Iberiar Penintsula Europatik askatzen delako ideia sinpleari buruzkoa dela aipatu gabe. Erantzun hori emateak, baina, irakurle orok dakien hori isilarazten du—nobelaren gaia gertakizun geografiko soila baino askoz haratago doala; kontzeptu filosofiko eta humanistiko konplexuei buruzkoa da, ezagutzaren eta arrazoiaren izaerari buruzkoa, hori guztia auzazkoak omen diren bost pertsonaien bizitzetan zehar adierazita. Are gehiago, On Kixote-ren argumentua labur eman behar izatekotan ere, berdinki murrizta liteke esatea erotzen den espainiar baten istorioa besterik ez dela; beste zerbaitek beharko da gertatu 1000 orri baino gehiagotan. Gainera, bi kasuetan ere badaude aldi bereko argumentu eta gertaera anitz, gizateriarentzako funtsezkoak diren galderen inguruan aritu eta hizkuntza eta kulturen arteko elkarrizketan sartzen direnak.

Argumentu-hari errizomatikoak eta Saramago eta Cervantesen hastapen nobelistikoen anbibalentziak gorabehera, eta bi autoreok abiatze puntua zehazteari uko eginagatik ere, biek ere arreta handia jartzen diote topografia arras zehatz bati, bidaztien ibilbidea erakutsiz. Hartara, bestela ezinezkoa litekeen sinesgarritasun bat gehitzen zaio istorioari, hala nola argumentuarekin berarekin talka egiten duen egiazkotasun kutsua. Eta hori bidaia-narrazioaren generoarekin bat doa, izan ere askotan protagonistaren ibilbideari egiazkotasuna gehitzeko esfortzu handiak egiten baitira, toponimo ezagunak sartuz eta gertaerak berak zertan egiaztatu behar gabe. Izatez, izena jartzea bera ere muinean ezagutza mota bat da, bere hartan. Bidaia narrazioaren irakurleak, herri eta errepide eta mugarren identifikazio obsesiboa dela eta, denbora joan delako sentsazio bizia dauka. Bidaiaren bigarren-eskuko deskripzio soil batez armaturik, posible liteke pertsonaien ibilbidearen mapa bat sortzea. Adibidez, On Kixoteren “salida” horien geografia marraztea legoke, eta berbera egin liteke Saramagoren nobelako pertsonaiekin.

Bestalde, irakurleak ez ditu pertsonaien ibilbideak pasaiarekin bakarrik segitzen; liburuaren orrietan zehar ere jarraitzea badu. Michel Mewshawk aipatzen duenez, “even the languages of travel and of literary criticism overlap. In both cases we speak of setting out, starting off, making transitions, taking detours or digressions, doubling back and approaching events or destinations from different points of view” (2005: 5). Saramagorentzat bidaia, mugimendu fisikoa, idazkera mota bihurtzen da; espazioan zehar bidea markatuz epistemologia eta pasaiaren funtsezko gaiak birkontsideratzen dituen testu alternatibo bat. Testuaren lerroak irakurtzearekin batera, hartzailea istorioaren bide bihurriari lotzen zaio, kode narratologiko bat deszifratuz eta amaieraraino nola, zehazki, iritsiko den erabakiz.

Irakurtzearen ekintza bera, begirada orri gainean iragaitearena, hiri bateko sare konplexuan nabigatzearen itxura hartzen hasten da hain zuzen ere. Mewshawren aipuak, Saramago eta Cervantesen erronkazko itzulunguru narratibo postmodernoen ondoan jartzean, Michel de Certearen *Walking in the City* dakarkigu gogora, zeinetan adierazten den oinezkoak inoiz ez direla hiriko antolakuntza-sistemak absolutuki definitutako eratan mugitzen. Egitura narratibo ezin postmodernagoak sortuz, bi autore iberiarrek konbentzioei muzin egin eta absolutu oro ukatzen dute, eta ondorioz hobekien taxuturiko planek ere ezin dute ez beren autore-jardunbidea ezta beren bat-bateko protagonista bidaiariena ere mugatu. Ordea, fikziozko bidaiariok aukeratzen duten bidea edozein dela ere, azkenean On Kixoterentzat gauzak argitzea, eta azalpen eta berrespen nahia dira bere ibilerak elikatzen dituenak. Abenturaz abentura joaten zen Cervantesen aroko zaldun alderraia, baina Saramagoren protagonisten antzera On Kixote ere esanahi osoago baten xerka zebilen; “el caballero parte para un peregrinaje sin rumbo que en definitiva es una búsqueda de sí mismo” (Rico, 2014: 1193). 944036289

Cervantesen idazkera postmodernoa, hainbat tradizio literarioren nahasteeklektikoa izaki, tradizio barroko-tik edatendu, *desengaño*-aren gaia betiko obsesio duen genero hartatik; kamusada, azalkeetatik haratago ikustearen zentzuan. *On Kixote*-ren argitalpena 1609ko moriskoen kanporaketarekin bat egin zuela kontutan harturik, Urrezko Mendeko eta literatura barroko arduraren nagusienetarikoa bat zen kanpoko eiteez haratago izatearen benetako egia gorena ikustea. Beraz, gauzak diren bezala ikustek mugiarazten du Cervantesen garaiko literatura gehiena. On Kixotek berak dio “es menester tocar las apariencias con la mano,” —bista soilaz ez garela fidatu behar baizik eta zentzu literalean ukitu eta sentitu behar dugula bizitzaren benetako funtsa deszifratzeko. Saramagok baina itxuraz iradokitzen duena zera da, *desengaño*-a ezinezkoa dela, esfortzu handiena eginda ere ez dugula sekula iberiar identitate bat aurkituko, kasu honetan, europar identitate absolutu batera inoiz ailegatuko ez garen bezala. Edo agian Saramagoren *engaño* handiena nazioa berarena da, zeren *A Jangada de Pedra*-ko pertsonaiek mini-gizarte komunal, antikapitalista bat eratu eta haren barnean funtzionatzen baitute, bertan teknologia modernoak (nabarmenki beren *Deux Chevaux* autoak) huts egin dielarik. Tartean, Estatuaren azpiegiturak ere behera egin du; eta hala, modernitate eta gobernuari muzin eginez, Saramagok ondorioztatzen du *desengaño*-rako bide bakarra lekora ez ezik barnera begiratzea dela. Bestalde, su armak bezalako teknologia aurrerapenek eta indar armatu formalen sendotzeak zaldun alderraiaren gainbeheran eragina izan zuten Europan zehar, horrela On Kixoteren anakronismoa areagotuz. Ordea Saramagorentzako zientzia modernoaren porrota da izatez pertsonaiak beren iraganaren inguruan, beren buruen inguruan aritzera bultzatzen dituenak.

Saramagorentzat, Cervantesentzat bezala, ezagutza esperientzialaren iturria den bilaketa edo abenturaren tropoa medio bihurtzen da mugimendua eta lekualdatzeak (berdin pertsona batena ala lurrarena izan) bidaztia nola eraldatzen duen esploratzeko. Nabarmentzekoa da Cervantesek urteak eman zituela Algeriako kartzela batean eta Lepantoko guduan aritu zela, eta beraz ez da harrizkoa lekualdatzea eta bidaiaria bere idazkietan nonahi agertzea. On Kixote berak ere Sanchori diotso, “Paréceme, Sancho, que no hay refrán que no sea verdadero, porque todos son sentencias sacadas de la misma experiencia, madre de las ciencias todas” (2007: 224). Saramagok ere bidaietan zehar izandako esperientziak erabiltzen ditu inspirazio literario gisa. Haren *Viagem a Portugal* (1985) liburua Portugalgo eskualde bakoitzean eginiko egonaldietan konposaturiko *crónica* bilduma da. Saramagok atzerritar baten ikuspuntutik idazten du, irakurlearentzat eta baita bere buruarentzat ere aberria arrotuz. Cervantesen *Kixote*-ari eta Homeroren bidaiakontakizunei erreferentzia egitearekin batera, Saramagok bidaiak idazle maisuen aldean ipintzen du bere burua. María Fernanda de Abreuk dioenez, “quiere ser incluido en él: un linaje de aventuras homéricas, de historias de hadas o (y) embrujos o (y) andantes caballerías. Narrador, esto es: autor y contador de tales aventuras” (2002: 10). Abreuk gehitzen du, gainera, Saramago ez dela soilki Cervantesen imitatze edo gogorarazte bihurri batean ari, baizik eta horrekin leinu jakin bat ari zaigula erakusten, zeinaren zordun den ez autore gisa bakarrik, baizik eta Iberiako autore gisa.

Cervantes eta Saramago bera bezalaxe, *A Jangada de Pedra*-ko pertsonaiak ezagunaren erreinutik kanporatzen dituzte, eta baita beren bizitzak, beren buruak ere akaso, atzean uztera behartu ere. Euren espazioan turista, bai Saramagoren pertsonaiek bai Cervantesenek usu aurkitzen dute “bestea” exotizatu berri zaien beren aberrian. Bidaiak eta horrek bidaiarietan eurretan duen efektuak erakusten du paisaia batek zelan informatzen duen kultura bat, herrialde bat, eta bertako biztanleak. Paisaia historia dago izkiriaturik; kultura bat irudikatzen du objektiboki eta subjektiboki eta bere hartan du esanahi berezko bat. Nolanahi ere, Don Mitchell geografo kulturalak gogorarazten digunez, “one of the chief functions of landscape is precisely to *control* meaning and to channel it in particular directions. Yet, that said, it is also certainly the case that in landscape meaning is contested every step of the way” (2000: 100). Horrela, paisaiak bitara funtziona dezake; alde batetik ezagutzaren produkzio eta barreiatzearen mundu ofizial eta absolutuan, eta bestetik, bere aurka egitean, paisaiaren zentzua iragankor eta ezegonkor bihurtzen delarik. Saramagoren nobelak aukera hau frogatzen du Penintsula banatzearekin identitate erregionalak kolokan jartzen direnean, aldi berean ezin inportanteago ematen duten bitartean. Zentzu batean, pertsonaia batek bere herria deitzen duen Espainia edo Portugalgo alde partikularrak nolabaiteko esangura galtzen

du, Europatiko banatzeak barneko diferentziak ezabatu ditu eta. Eta alderantziz, Pedrok Roque Andaluziakoa dela jakiten duenean, esaterako, ondare komun horrek berehala batzen ditu, Mitchellek aipatu lurraldeko zurkaltz ideologiko horiexek nabarmenduz. Dena den, Penintsula askatzearekin pertsonaiek beren inguruekiko etxekotasuna galtzen dutela dirudi, hankak buru eta hegoa ipar bilakaturik. Mundua berrezagutu behar dute fenomeno esplika ezin baten apetaren arabera eta ezohiko metodo epistemologikoen bitartez, eta bi faktoreek beren lurralde-identitateen dekonstrukzioa egin eta zalantzan jartzera behartzen dituzte.

Bi eleberrien bukaeran pertsonaiek bidaiaren hasieran ez zeukaten ulermen aurkitu berri bat daukate. Arroztasunetik etxekotasuna ernetzen hasten da, eta era berean, sufritzen duten Europatiko banatzeak pertsonaien arteko lotura sustatzen du. On Kixote La Manchako bere herrixkara bentzuturik itzultzen da, bere eldarnioei uko eginez eta *desengaño* deprimigarri batez azkenik liburuari amaiera emanez. Artean, *A Jangada de Pedra*-ko bost protagonistek etengabeko bidaiari darraite Saramagok kutsu amaitugabeaz nobela bukatutzat ematen duenean. Azken orrialderako, Pedro hil da, Penintsulak higitzeari utzi dio, baina bidaia ez da inola amaitu. Harrizko baltsa naretu da agian, baina bertoko biztanleen barneko joan-etorriek nobelaren espazioaz haratago diraute amaigabeen.

Saramagok identitate eta epistemologiaren ideal absolutuenganako daukan baliobitasunaren efektu artegagarria desegin egiten da nobelaren amaierako egonkortasunarekin batera, protagonistek gizadiarekiko eta etorkizunarekiko fedea berreskuratzen dutelarik beren kokaleku geografiko igarokorraren despit. Are gehiago, emakumezko protagonistak haurdun geratu dira denak, belaunaldi berriarekin batera birjaiotzea bakarrik ez baizik eta historia eta historiografia berrinterpretatzeko aukera adieraziz. Eta ez dezagun ahaztu nobelan zehar harilkatzen den argumentu-hari erromantikoa, esperantza ekarriz eta frogatuz pertsonaia desberdinenen artean ere antzekotasunak, eta baita maitasuna ere, aurki daitezkeela. Maitasunak, emozio ezin gizatiarrago horrek, Saramagoren bi pertsonaia motibatzen ditu, On Kixoteren ibilerak Dulcinearekiko obsesioak bultzatzen dituen moduan. Bere pertsonaiak lotzen dituen erlazio esanguratsuak direla eta, beren istorioak bukatzean Saramagok ez du irakurlea krisi existentsial edo pesimista batean abandonatzen, horrela Penintsularen mugimenduen ziurtasun ezaren zama arinduz. Existentsialismoari azken omenaldi batean, Saramagok esperientziatik ezagutza komunikabide ofizialetatik heltzen den informazioa baino fidagarriagoa izan daitekeela baieztatzen du, Cervantesek Estatuak babestutako instituzioen hipokresia agerian jartzen duen bezala —kasurako, On Kixoteren liburutegia modu bidegabe eta amorragarrian suntsitzen duten Elizgizonak. Saramagorentzat, sistema berauek kale egin dute A

Jangada de Pedra-ko Penintsularen banaketari azalpenik eman edo arazoa konpontzeko orduan, eta horrek bere pertsonaiak abenturan abiatzera bultzatzen ditu.

Zalduntzan guztiz erroturiko mugimenduaren eta bidaiaren tropoa lagun, Saramagok historia, historiografia eta epistemologiaren izaera ezbaian jartzen ahal du testuinguru bereziki moderno batean. Saramago zalduntza alderraiaren berraztertzeari lotzen zaio bidaia narrazio garaikidearen itxurapean. *Cosmopolitanism*-en, Appiahk idazten du, “We do not need, have never needed, settled community, a homogenous system of values, in order to have a home” (2006: 113). Saramagoren pertsonaia Roque Lorezok ere antzera amaitzen du bere bidaia, etxea/aberria zentzu unibertsalean berrirudikatuz: “Agora volto para casa, não será por tanto andar a terra às voltas que ele deixou de estar no mesmo sítio, A terra, Não, a casa, a casa está sempre onde estiver a terra” (1986: 311). Lurralde, errealitatea eta ezagutza nahita ukatzeak zalantzan jarri eta higitzen ditu nazioaren esparruko egia eta identitatearen nozioak. Ereduzko ezagutza delakoa ekidinez, Saramagoren pertsonaiek ezagutza multzo alternatiboak lehenesteko aukera egiten dute —haragizko ezagutza, kaleko jakintza, eta esperientziaz ikastea. Eta Penintsula momentuz behintzat gelditu den arren, bidaia liburuaren azalen artean gertatzen diren ibilera laburrak baino gehiago dugu; bititza bera da.

Bibliografía

- ABREU, M F. (2002): «Dos Caballos-Rocinante o El Viaje en La Balsa de Piedra Leída por El Quijote», *Ínsula*, 663,10-11.
- APPIAH, K. A. (2006): *Cosmopolitanism: Ethics in a World of Strangers*, New York: W.W. Norton.
- CERVANTES SAAVEDRA, M. (2007): *Don Quijote de la Mancha*, Rico, F. (ed.), Madrid: Punto de Lectura.
- CUESTA TORRE, M. L. (2007): «De combates interrumpidos y manuscritos incompletos. En torno a *Quijote* I. 8-9 y los libros de caballerías», *Bulletin of Hispanic Studies*, 84, vol. V, 553-571.
- DANIEL, M. (1991): "Symbolism and Synchronicity: José Saramago's *Jangada de Pedra*", *Hispania*, 74, vol. III, 536-541.
- LOUGH, F. (2002): «National Identity and Historiography in Jose Saramago's *A Jangada de Pedra*», *Journal of Iberian and Latin American Studies*, vol. 8, issue 2, 153-163.
- MEWSHAW, M. (2005): «Travel, Travel Writing, and the Literature of Travel», *South Central Review*, 22, vol. II, 2-10.
- MITCHELL, D. (2000): *Cultural Geography: A Critical Introduction*, Oxford: Blackwell.
- SARAMAGO, J. (1986): *A Jangada de Pedra*, Lisboa: Caminho.
- WHITENACK, J. (1993): «Don Quixote and the Romances of Chivalry Once Again: Converted Paganos and Enamoured Magas», *Cervantes: Bulletin of the Cervantes Society of America*, 13, vol. II, 61-91.